

## G7a eta gero



JAKES BORTAIRU

**G**7 pasatu ondoren, zer gelditzen da? Komunikazio operazio ona Macronentzat, baina diplomatikoki emaitza konkretu eskasak. Haatik, Euskal Herriarentzat gertakari adierazgarria izan da: estatuaren jokaera alde batetik eta parean eragile sozio-politikoek eman dugun erantzuna.

Aitortu behar, parte handi batez, estatuko arduradunek lortu dutela helburu zuten hiru maila kontrolatzea: espiritualak, espazioa eta G7aren kontrakoen ekimena. Espirituen kontrolerako diskurtso borobildua zabaldu dute, G7aren legitimitatea eta eraginkortasuna azpimarratuz, Miarritze, Euskal Herria eta Akitania osoarentzat G7ak ekarriko zituen onurak eta fama ahantzi gabe. Baina taktika maltzurragoak ere erabili dituzte. Hedabide batzuen bitartez beldurra eta paranoia hedatzeko mezua hedatu dute astez aste, estatuak indarrean jarri duen polizia dispositibo itogarria justifikatu nahian. Hain zuzen, neurritz kanpoak izan dira espazioaren erabateko kontrola lortzeko erabilitako medioak. Horretan hainbat auzapezen laguntza lotsagarriarekin kontatu ahal izan dute: komertzioak hetsiak, merkatu, kirol eta kultur gertakizunak ezeztatuak, hots BAB osoa "hiri hilak" ziren gailur denboran, karriketari ibiltzen ausartzen ziren

jende oro susmagarri bilakatuz. Azken hilabeteetako polizia bortizkeriak ereindako beldurrak ere mobilizazioa murrizteko eragin nabarmena izan du.

G7aren kontrako ekimenen kontrolerako taktikak ere ugari izan dira. Lehena, antagonismoa ukatu eta aurkariaren kritikaren potentzialtasun subertsiboa indargabetu. Prefetak etengabe errepikatu zuten: "Demokrazian bizi gara eta G7aren arrakasta kontra-gailurraren arrakastarekin bat dator". Bestalde, estatuaren partetik debekuak eta "laguntzak" txanpon bereko alderdiak ziren: plataformako kideak arazo teknikoetan ito, antolaketa berandutu eta ondorioz jendea mobilizatzeko komunikazioa tratatu. Azkenik mehatxu eta poliziaren presioa, kontra-gailurreko antolatzailak paretaren kontra atxikitzeko.

Behar zen erantzuna eman ote dugu? Baietz diote batzuek, argudiatuz erantzun irmoago batek kontrolik gabeko istiluak eta arazo politikoak sor zitzakeela, baina G7 EZ! plataformako eragile frankok ez dute horrela ikusten. Aukera galdua aipatzen dute, ez baita saiatu ere buru egiten inposatutako egoera antidemokratikoari. Ez da lehen aldia indar emantzipatzaileek bataila bat galtzen dutela. Berez ez da hain grabea baldin eta hausnarketarako aukera ematen badu eta geroari buruzko irakaspenak barneratzen badira. ●

## Deception row



ITXARO BORDA  
IDAZLEA

**M**acron pozik atera zen Miarritzetik, halaber Oteiza, Kintoko enpresaria, urdaiazpikoa Trumpi opariturik. Baina G7aren kontrako gailurrak dezepzioa piztu zuen iraultzaileen oldeetan. Batzuk etorriak ziren pataskatzeko, hiriak sutan uzteko deklaratuak ez ziren manifestaldien kariatara, horiz jantzirik edo ikurrinak eskuetan "indar erreprentiboak" desafiaturik. Ez zituen polizia dispositibo izugarriak durduzatu, baizik eta ezkertiarren, abertzaleen eta jakazaleen arteko jasanezinak, azkenok abertzaleei, debadioen kontrola eta manifestaldien pazifismo kolaborazio-

nista leporatzen dietela oraindik ere sare sozialetan!

Urriñako uda-lekuko espazioa partekatzeko arazoak sortu zituen. *Gilets jaunes*, feministen eta alternatiboen artean adibidez, leize bat bazegoela ohartzeko balio izan zuen. Eta alderantziz, *black blocs* delakoak etorri ezean, horiz jantziek abertzaleen borrokalari senarekin konta zuketzen. Baina abertzaleen interesak ez dira gehiago horretan: aspaldiko partez, turismo kapitalistaren oinarrian eraiki Ipar Euskal Herriko ekonomia defendatu eta zaindu zuten; halatan, frustrazio puntuak metatu ziren, lau egunez...

*C'est la vie?* ●